



EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 22koa, Euskadiren Frantziako ordezkariarena, zeinaren bidez ebatzi egiten baita Euskadiren Frantziako Ordezkaritzako lanpostu hauek betetzeko hautaketa-prozesua: enpresa aholkularitzaren Goi Teknikari bi lanpostu.

Euskadiren Frantziako ordezkariak, 2023ko urtarrilaren 26eko Ebazpenaren bidez, hautaketa-prozesurako deia egin zuen, hari erantsitako oinarrien arabera enpresa aholkularitzako bi lanpostu betetzeko Euskadiren Frantziako Ordezkaritzaren zerbitzuan jarduteko.

Oinarrietan ezarritako probak egin ondoren, hautapen prozesua bukatu eta prozesu horretan lortutako eta argitaratutako emaitzen arabera:

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra. 1. Hautapen prozesuan puntuaziorik onenak lortu dituzten hautagaiei lanpostuak esleitzea eta ordezkoen zerrenda ezartzea:

Egindako proben eta merezimenduen balorazioaren ondoriozko puntuazioaren arabera, prozesuan jarraitzen duten artean puntuaziorik altuena lortu duten hautagaiak eta, beraz, bete beharreko bi lanpostuen esleipendun direnak, hauek dira:

1. Beñat LEKUONA MARISCAL
2. Sonia DE LA FUENTE GARAGALZA

Ordezkoen zerrenda osatzen duten hautagaiak hauek dira:

Erregistro zenbakia	Puntuazioa
RRI-15032023-019	54,95



2. Behin-betiko hautatutako hautagaiek 10 egun naturaleko epea izango dute, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita, jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkezteko, eskatutako eta alegatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Lan kontratua sinatzeko 31 egun naturaleko gehieneko epea ezarri.

Azken xedapen bakarra. Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Parisen, 2023ko maiatzaren 22an

María Aránzazu López de Munain Zulueta
Euskadiren Frantziako Ordezkarria